

HUHEZIK ordenagailu-gela berria ireki du, 21 ordenagailurekin

2007/06/03

Oraindik orain Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, **HUHEZIK**, infogela berri bat egin du, ordenagailu-gela bat, 21 ordenagailurekin. Infogela berria **Dorleta eraikinean** dago, eta erabil daiteke ikasgela moduan, horretarako **proiektagailua** ere bai baitauka, eta ikasleen lantegi bezala, han egin ditzaten egin beharreko lanak.

Ordenagailu-gela oso txukun dago antolatuta: ordenagailuek pantaila lauak dituzte, 17 hazbetekoak, eta kable guztiak ezkutatuta doaz, erabiltzaileek trabarik izan ez dezaten lan egin bitartean. Argazki sorta honetan ikus daiteke zelakoa den infogela berria.

HUHEZIK hiru ordenagailu-gela ditu bi eraikinetan banatuta, eta guztira **130 bat ordenagailu**, ikasleek erabil ditzaten, denak ondo hornituta, Windows XP sistema eragilea, beharrezko aplikazio ofimatikoak eta konexioa Internetekin.

